

TABAKALERA



KOMISARIOTZA PROGRAMAN PARTE HAR- TZEKO DEIALDIA 2016-2017

**LEHENENGO MODULUA:
PROIEKTUEN KOMISARIOTZA
CATALINA LOZANO-REN ESKUTIK
2016ko EKAINAK 20-24**

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTER OF
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eu
—



1. AURKEZPENA

Arte- eta produkzio-zentroa den aldetik, sortzaileei babesa emateko espazio eta programa bereziak dauzka Tabakalerak. Artista eta kultur eragileen esku jarritako zerbitzu eta baliabide batzuk dira espazio eta programa horiek, eta praktika artistikoen sektorean profesionalki lan egiten duten edo lan egin nahi duten eragileei profesionalizatzeko aukera ematea eta haien profesionalizazioa bermatzea dute helburutzat.

Komisariotza-programa dugu zerbitzu eta baliabide horietako bat. Komisariotza-azterketak eta -praktikak bultzatzeko 2015ean hasitako ildo horren bidez espazio bat eskaini nahi dugu Tabakaleran, komisariotzari buruzko gogoeta eta trebakuntza lantzeko eta zeharka edo albotik komisariotzarekin zerikusia duten gaiak jorrazteko, hala nola kritika, ikerketa, produkzioa eta bitartekaritza.

Datozen bi urtetan komisariotzari lotutako ikerketa eta praktika mota desberdinak jorratuko ditugu, lau unetan banatutako lau moduluren bidez. Gaia zatikatu edo banatzeko asmorik gabe, komisariotza-praktika ulertzeko, lantzeko eta gauzatzeko modu desberdinak landu nahi ditugu modulu horietako bakoitzean. Horretarako, sektoreko profesionalak gonbidatuko ditugu, eta haiek beste bi profesional gehiago gonbidatu ahal izango dituzte, modulu bakoitzaren edukiak osatzeko. Profesionalek diseinatuko dituzte moduluak, eta bost egun iraungo dute, astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsaldeko saioetan.

Koordinatzaile bakoitzak erabakiko du moduluen osaera: aurkezpenak, tailerrak, hitzaldiak... Saio teoriko eta praktikoen bidez komisariotzari lotutako ikuspegi eta jardun-moldeak aztertuko dira.

2. NORI ZUZENTZEN ZAI O PROGRAMA HAU?

Praktika artistiko garaikideko trebakuntza jaso eta gero, komisariotzari lotutako gogoeta, ikerketa eta praktiken alorrean esperientzia duten edo, halakorik ezean, esparru horretan beren ibilbidea hasteko asmoa frogatzen duten Donostiako, Euskal Herriko eta nazioarteko pertsonen zuzentzen zaie programa hau.

Moduluetan parte hartu ahal izateko, praktika artistikoetan duten trebakuntza frogatzeaz gain, komisariotza arloan duten esperientzia ere erakutsi beharko dute, beren CVaren bidez.

Modulu bakoitzean 20 parte-hartzaile arituko dira gehienez, moduluak independenteak izango dira elkarren artean eta parte-hartzeko deialdiak behar besteko denborarekin argitaratuko dira, parte-hartzaileak aukeratzeko eskaerak aurkezteko nahikoa denbora utziaz. Modulu bakoitzaren koordinatzaileak eta Tabakalerako ordezkariak hautatuko dituzte parte-hartzaileak. Lehendik 2016-2017ko komisariotza-programako aurreko moduluetan parte hartu dutenek lehentasuna izango dute.



Moduluetan parte-hartzea doakoa da, baina hautatutako parte-hartzaileek modulu bakoitzean proposatutako saio guztietara joateko konpromisoa hartu beharko dute. Tabakalerak ez du bekarik edo laguntzarik emango moduluak irauten duen asteko bidai gastuak, lotako lekua nahiz jatekoak ordaintzeko, baina egoiliarren *officea* erabiltzeko aukera emango zaie parte-hartzaileei.

3. HAUTESPEN ERIZPIDEAK

Aurkeztutako izen-emateak lehenengo modulua koordinatzaile den Catalina Lozano eta Tabakalerako Praktika Garaikideetako lankideek hautatuko dituzte onodrengo erizpideak kontuan izanik:

1. Komisariotza arloan izandako esperientzia.
2. CVa
3. Moduluan parte hartzeko motibazioa.
4. Orainarte jasotako formakuntza edo momnetuan jastozen ari dena.
5. Ingelera nibela

4. LAU MODULU

3.1. Proiektuen komisariotza, 2016ko ekainak 20-24 Catalina Lozanoren eskutik

Komisariotzaren lana proiektuan parte hartzen duten eragileekin lotura estuan egiten deneko komisariotza-praktika bat landuko da modulu honetan. Erlazio horren barruan, bai komisarioak bai artistak forma emango diote proiektu artistikoari eta komisarioak laguntzaile-lanak egingo sorkuntza-prozesuan eta laguntza kritikoa nahiz kontzeptuala emango ditu, halaber, proiektuaren hasieratik produkziara bitartean.

3.2. Ikerketa-komisariotza, 2016ko azaroa Katerina Gregosen eskutik

Modulu honetan ikerketatik abiatutako komisariotza jorratuko da. Halakoak prozesu luzeagoak izaten dira eta era askotako premia eta faseak izaten dituzte. Era berean, disziplinen arteko erlazioa sortzen da bertan artistaren eta parte hartzen duten eragileen artean. Erakusketa-formatua kudeatzeko eta garatzeko modua izaten da prozesu hauetan komisariotzak argitu beharreko erronketako bat.



3.3. Kritika eta idazkuntza, 2017ko ekaina Peio Aguirrerren eskutik

Idazkuntza eta testua komisariotzarako funtsezko elementutzat hartuta, kritikak eta idazkuntzako genero desberdinak, saiakerak adibidez, komisariotzan eta proiektu artistikoen garapenean duten presentziaz gogoeta egitea da modulu honen helburua. Adibide eta erreferenteak aztertzearekin batera, idazkuntza eta kritika lantzeko tarteak eskainiko dira.

3.4. Komisariotza eta hezkuntza, 2017ko azaroa Nora Sternfelden eskutik

Komisariotza eta hezkuntza fase desberdinetan garatzen dira askotan. Modulu honetan, baina, hausnarketa egin nahi dugu bien bizikidetzari buruz eta proiektu artistikoa eta hezkuntza aldi berean garatzeak eta egiteak biontzat izan ditzakeen onurei buruz. Era berean, komisariotza hezkuntzarako tresna gisa ere jorratuko dugu.

5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lehen moduluan parte hartzeko izen-emate epea **maiatzaren 18tik ekainaren 6a** arte egongo da irekia. Huatatuen izenak ekainaren 8an emango dira ezagutzera.

Hautatuak 5 eginetako epean konfirmatu beharko du modulaun parte hartzeko onespena.

Izen-ematea Tabakalerako webgunearen bidez emango beharko da, online bidezko formulario bat betez gero eta honako dokumentazioa atxikituz:

1. Harremanetan jartzeko oinarrizkoak: izena, abizenak, helbidea, e-posta, telefono zenbakia eta jaiotze data.
2. Programa honen lehenengo moduluan parte hartzeko motibazioa (gutxienez 500 hitz, gehienez 100 hitz).
3. CV eta biografia motza bat (gehienez 500 hitz)
4. Bestelako materialak.

Dokumentazio hau PDF formatuko dokumentu bakar batean aurkeztu beharko da (gehienez 10 mega, 10 orrialde). Dokumentuaren izenak erizpidea hau jarraitu beharko du: izena_abizena_kp_moduloi; adibidez mara_renart_kprograma_moduloi.

Info +:

pgaraiideak@tabakalera.eu

943011311

www.tabakalera.eu